



Hitzen bidai liluragarria.- Antzerki eta malabareak uztartzen dituen 'Letter: eskutitz baten bidaia' antzezlanak ikusi ahal izan zuten larunbatean Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren herritarrek. Hiru antzezleek ia hitzik erabili gabe umore eta poesiaz betetako istorioa taularatu zuten. Protagonistak gutunak eta hitzen bitartez bertan adierazten diren sentimenduak ziren. Keinuak eta malabareak erabiliz, musikaren doinuak lagun zituztela, Malas Compañías taldeko kideek gutunetan idatzitako hitzen bidai berezia irudikatu zuten Manuel Lekuonako oholtzan. Igorleak eskutitza idaztea erabakitzen duenetik hartzaileak irakurtzen duenerainoko prozesua erakutsi zuten, baita gutuna iristeko irrikitan zauden momentua ere. Etxeko txikiek ederki gozatu zuten ikuskizunarekin, esate baterako, haien barre algarak entzun ziren emanaldiko hainbat tarteetan. Aste honetan ere antzezkiak gozatzeko aukera izango da Lasarte-Orian, ostiralean 22:00etan, 'Florido Pensil - Nesak' lana eskainiko baitute Manuel Lekuona kultur etxean.

2 INGURUMENA

Oria ibaiaren osasuna hobetzen

Oria Beheko hodi biltzailearen obrak amaitutzat eman dira. Ostiralean, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak Añarbeko mankomunitateari obra entregatu zion. Ekitaldian, besteak beste, Añarbeko Uren Mankomunitateko zuzendari Maije Zelaiak, Kantauriko Konfederazio Hidrografiko zuzendari Ramon Alvarezek eta EAEn Espainiako Gobernuko ordezkari Carlos Urquijo izan ziren.

3 KULTURA

Maiatzeko kultura agenda ekintzaz lepo dator

Lasarte-Oriako alkateak eta Kultura saileko arduradunak hilabete honetako kultur agenda jakitera eman zuten lehengo astean. Zinea, bertsoak, hitzaldiak, musika ekitaldiak, erakusketak, antzerkiak... adin eta gustu ezberdinetarako ekintzak izango dira Manuel Lekuona kultur etxean.



4 KULTURA

Dantzak nagusi Okendo plazan

Ostiralean, Dantzaren Nazioarteko eguna zen. Mundu osoko herrialdeetan ekintza ezberdinak egin ziren eta Lasarte-Oria ez zen atzean geratu. Kukuka antzerki eta eskolak sustatuta, herriko dantza eskolek emanaldi berezia eskaini zuten Okendo plazan. Estilo ezberdinez eta hauen nahazketaz gozatu ahal izan zuten plazara hurbildu ziren herritarrek.



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.com

943 36 46 00

Etarte bidea, 9 (Zubieta) - 20170 Usurbil

Maiatzak 7, 11 eta 14 ATE IREKIAK

Fabrikazio mekanikoa



Elektrizitate-elektronika



Administrazioa



Produktzio zerbitzu eta mantenimendua



Energia eta ura



Erdi eta goi-mailako zikloak
A, B eta D ereduak



Oria ibaia saneatze bidean

Oria Beheko hodi biltzailearen obra amaierako ekitaldia egin zuten ostiralean

1994ean adostu zituzten Añarbeko uren saneamendurako obrak. Oria Beheko ur zikinak Loiolako araztegiara eramango dituen kolektorearekin amaitutzat eman dituzte, nahiz eta gune batzuk hodi biltzailearekin lotzeko falta diren. Ostiralean Zubietako ponpaketa estazioan egindako ekitaldian, ofizialki entregatu zitzaion obra Añarbeko Uren Mankomunitateari.

Bi hilabete dira Oria Beheko ur zikinak Loiolako araztegiara garraiatzen dituenetik. Ostiral eguerdian egindako ekitaldi instituzionalean, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak –Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurugiroko Ministeritzaren menpekoa– Añarbeko mankomunitateari obra entregatu zion.

Lasarte-Oria eta Zubietara artean eraiki duten punpaketa estazioan elkartu ziren. Obra-aren atal ezinbesteko horrek kolektorean garraiatutako ura bulkatzen du.

Añarbeko Uren Mankomunitateko zuzendari Maije

Zelaiak, Kantauriko Konfederazio Hidrografiko zuzendari Ramon Alvarezek eta EAEn Espainiako Gobernuako ordezkari Carlos Urquijok sinatu zuten akordioa.

Onuradun diren Lasarte-Oriako, Donostiako eta Usurbilgo Udaletako eta Zubietako Herri Batzarreko ordezkariak ere parte hartu zuten ekitaldian.

Konpromisoa

Zelaiak azpimarratu du Oria Beheko saneamenduari begira “urrats nabarmena” eman dutela. Halaber, hemendik aurrera, bide horretan “profesionaltasunez” arituko diren konpromisoa hartu du.



Añarbeko Uren Mankomunitateko eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren ordezkariak sinatu zuten entrega.

Alvarez, bere aldetik, 1994an Añarbeko mankomunitateko urak biziberritzeko plana aurkeztu zuten ekitaldiaz gogoratu zen. Ostiralekoarekin adostutakoa bete dute azkenik, nahiz eta, diotenez, “obra publikoek segida” izan behar duten. Bestalde, Alvarezen

ustez, 20 urtetan “instituzioen arteko elkarlanari esker” posible izan da lanak amaitzea.

Ingeniariek hartu zuten hitza ondoren, eta kolektorearen eta punpaketa estazioaren lanak azaldu zituzten. “Azken helburua ingurugiro hidrografikoa biziberritzea” dela nabarmendu

zuten. Mankomunitate osoko lanek 313 milioi euro inguruko kostua izan dute, “bere garrantziaren adierazgarri”.

Amaitzeko, Añarbeko eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoko ordezkariak batera sakatu zuten ponpaketa estazioa martxan jartzen duen botoia.

‘Amnistia’ eztabaidagai preso ohien eskutik

Jose Domingo Aizpurua eta Xabier Alegria preso ohiek hitzaldia eman zuten ostegun arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxeko batzar aretoan. Amnistiaren kontzeptua izan zuten ardatz eta haren bilakera historikoa eta gaur egungo egoera eztabaidatu zituzten.

Aizpuruak azaldu zuenez, azken hilabetetan amnistiaren inguruan sortutako eztabaida dela eta, preso eta preso ohiek gaiari buruzko gogoeta egitea erabaki zuten. Ondorioz gizarteratzeko erabakia hartu dute, eta Lasarte-Oriako hitzaldia horren adibide da. Hala ere, nabarmendu zuen presoak ez direla, bere horretan, subjektu politiko eta “kolektiboa norbanakoek osatzen dutela”.



Manuel Lekuona kultur etxeko batzar aretoan elkartu ziren.

Hala, amnistia kontzeptuari buruz orain arte egindako gogoetak erreparatu zituzten, euskal gatazkan eta gizartean hartu duen esanahia aztertuz.

Ezker Abertzaleak histori-

koki “gatazka politikoaren konpoketa oso baten testuinguruan” ulertu duela adierazi dute.

Etorkizunari begira “progresiboki” sakondu beharreko kontzeptua dela diote.

Bizipenen poesia

Solo una voz” poesia liburua idatzi du Ludi Cuesta herritarrak eta ostiralean aurkeztu zuen. Xabier Goitia Manuel Lekuona kultur etxeko kudeatzailea, Maite Iglesias Kultura batzorde burua eta Urkiri Salaberria Literatur tailerreko arduraduna izan zituen lagun aurkezpenean.

Urkirik Ludiren idazkera zuzena eta intimoa dela azpimarratu zuen, “horregatik guztiengan iritsi daiteke”.

Ametsa betea

Ludik liburua guztiena zela adierazi zuen, “nire inguruan dagoena kontatu baitut”. Izan ere, bere bizitzako pasarte ezberdinetan oinarritutako poesiak irakurri daitezke, hala nola, amona bisitatzen joaten

zenez edo bainuetxe batean sentitutakoa.


Beretzat egun berezia zela azpimarratu zuen, “azkenean nik nuen ametsa bete baita, liburu bat idaztea”. Eta bere ustetan, poesia “izan ezin duzuna bilatzea” dela aipatu zuen.

Azkenik, liburua eta poesia irakurtzera gonbidatu zituzten guztiak.



Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

KULTURA



Asteazkenean azaldu zuten agenda Udal ordezkari eta teknikariek.

Kultur eskaintza oparoa maiatzan

Bertsoak, dantza, hitzaldiak edo musika ekitaldiak izango dira

Lasarteoriarrek aspertzeko tarte txikia izango dute maiatzan. Udalak hilabete honetako kultur agenda aurkeztu zuen pasa den asteazkenean, eta hilabetea egitasmoz lepo datorrela azpimarratu zuten ordezkari eta teknikariek. Ohiko helduen eta haurren zinemas edota musika topaketek gain, bertso saio, jardunaldi eta erakusketa bereziak egongo dira. Alkate Jesus Maria Zaballosek nabarmendu du aurreko hilabeteetan bezain "harrera ona" espero dutela.

TXINTXARRI

Udara ate joka ari dela, kultur denboraldia ekintzez lepo amaituko du Lasarte-Oriak. Asteazkenean aurkeztu zuten maiatzeko kultur agenda. Zinemaz, antzerkiak edota musikaz gain, erakusketekin, hitzaldiekin edo dantzarekin ere gozatzeko aukera egongo da.

Zinema

Hileko lehenengo hiru igandetan haurrentzako eta helduentzako filmeak eskainiko dituzte.

Bart "Iparraldeko Norman" eta "Brooklyn" ikusteko aukera egon zen. Igandean 17:00etan, berriz, "El niño y la bestia" eta "Kiki, el amor se hace" eskainiko dituzte. 15ean, zineari denboraldia amaitzeko, "El libro de la selva" 3Dn eta "Julietta". Azken hau 23an ere ikusi ahal izango da, Okendo zinema taldeak antolatutako zine forumean.

Trantsizioak

Argia aldizkariak, Ttakun kultur elkartearekin batera, "Trantsizioak" izeneko erakusketa antolatu du maiatzaren 9tik 14ra Antonio Mercero aretoan.

1970tik hasita Euskal Herriko azken 45 urtetako historia aztertu ahal izango da argazkien bitartez. "Hurbilean izandako eraldaketa sozial eta politikoak" isladatuko dituzte publikatutako eta publikatu gabeko irudien bitartez.

Sufirimendua ulertuz

Danak Kide guraso elkarteak 'Balioetan hezi' jardunaldiak antolatu ditu. Baketik elkarte-ko Iker Usonek hiru egunetan emango dituen hitzaldiak sufrimendua izango dute ardatz.

9tik 11era iraungo duten jardunaldiak hiru zatitan banatu dituzte: sufrimendua ulertu, sufrimendua landu eta sufrimenduan sakondu.

Musika, dantza, antzerkia...

Musika topaketen maiatzeko saioan Euskadiko Orkestra Sinfonikoko irakasle Carlos Rosatek, Tomas Rutik eta Mario Telentik emanaldia eskainiko dute 6ean. Musika eta poesia errezitaldiak uztartuko dituzte arratsaldeko 19:30etik aurrera.

Egun berean "El florido pensil" antzeztuko du Ttanta-ka taldeak Manuel Lekuona kultur etxean. 90ko hamarkadan arrakasta handia izan

zuen lanaren moldaketa ikusi ahal izango da. Izan ere, oraingoan emakumezkoen bertsoa eskainiko dute. Frankismo garaiko eskoletako jazarpena eta elizaren eragina isladatuko dituzte, besteak beste.

Maiatzaren 7an New Yorkeko Avery Fisher Hall-en egindako "La dolce vita" emanaldiaren proiektzioa emango dute.

SuBerriren emanaldi bereziarekin gozatuko dute 21ean lasarteoriarrek. Tutik Clowns taldearekin batera umorea eta musika uztartuko dituzte.

Hilabete bukaeran, Erketz dantza taldeak Dantzari eguna eta Dantzari txiki eguna antolatu ditu 28 eta 29an. Okendo plazan dantzatuko dute, baina eguraldiak lagunduko ez balu, kultur etxera mugituko lirakeke.

"Berritsuketan bertsoan" izeneko saioa antolatu du Ttakun Kultur Elkarteak maiatzaren 14an. Bertsoa eta bakarrizketak tartekatuko dituzte, eta Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Ane Labaka arituko dira.

Bestalde, Imanol Etxabe herritarrak idatzi berri duen 'La mano del destino - Libertad' liburua aurkeztuko du ostiraleko 19:30etan Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Antonio Mercero gunean beste bi erakusketa eskainiko dituzte. 21etik aurrera energiaren astea dela eta, "Zubi-Gune", Usurbilgo Lanbide eskolaren laguntzaz. 30ean hasita, aldiz, J.M. Mongeren ikasleek pintura lanak erakutsiko dituzte

HIRIGINTZA

Eskailera mekanikoen eskubanden ordezkatzea

Lasarte-Oriako Udalak alkatetza-dekretu bidez Orona S. Coop. enpresari esleitu dizkio eskailera mekanikoen eskubanden ordezkapen lana.

Adarra kaleko, San Frantzisko kaleko eta Arranbide kaleko eskailera mekanikoen eskubandak aldatuko ditu Orona enpresak eta aurrekontua 37.452 eurokoa da.

Udalak jakitera eman duenez, eskailera mekanikoen funtzionamendu eta zerbitzu ona bermatzeko egin beharreko lana da, "zeren elementu horiek higadura handia izaten baitute eta, urte batzuk igarota, ordezkatu behar izaten baitira jasaten duten andeatzeagatik".

EMAKUMEEN ZENTROA

Bizitza umorez betetzen

Emakumeen Zentroko kide eta herritarrek bizitza umore onez aurre egiteko umore-terapia tailerra egin zuten asteazkenean. Nagore Vazquez

psikologaren laguntzaz, emozioak kudeatu eta umore ona nagusi izateko ariketa ezberdinak burutu zituzten saioan zehar.



LANAK

Sasoeta pasealekutik ekingo dio Udalak asfaltatze kanpainari

Maiatzaren 2tik 6ra eta 9an asfaltatze-lanak burutuko ditu Udalak Sasoeta pasealekuan, "eguraldiak hala uzten badu". Ondorioz, obra horiek gune horretako trafikoan eragingo dutela jakinarazi du.

Udalak Sasoeta pasealekuan egingo dituzten lanen inguruko xehetasunak eman ditu: errepidearen zoladura fresatuko dute eta nahasketa bituminoso beroko geruza bat zabaldu. Beharginak gauzez ariko dira lanean. Printzipioz, gaurtik 6ra eta 9an burutuko dira obra horiek. Eguraldiaren arabera datak alda daitezkeela zehaztu du Udalak.

Lanak egingo dituzten guneetan behin-behineko seinaleak jarriko dituzte. Hala, herritarrek "uneoro" jakingo dute erabili ezin duten erreia zein den, baita zein sarbide egongo diren moztuak ere. Era berean, lanek iraun bitartean, seinaleek zein aparkaleku ezingo diren erabili ere adieraziko dute. "Asfaltatze-lanek eragina izango dute aparkaleku, garajeetako sarrera eta zirkulazio erreietan; barkatu eragozpenak", adierazi du. Hori dela eta, Andatza plazan kotxeak utzi daitezkeela ere jakitera eman du Udalak.



Sukaldaritza tailerra familian

Ttakun elkarteak haur eta helduen aisia sailek sukaldaritza tailer berezia antolatu dute maiatzan zehar. Gure herriko lehen sektoreko produktuak erabiliz, plater eta postre gozoak egiten ikasiko dute haur eta helduez osatutako bikoteek.

Maiatzeko lau astelehenean egingo dira saioak, 9, 16, 23 eta 30an.

Saio bakoitzean plater bat landuko da menua osatzeko: lehenengo platera, bigarren platera eta postrea.

Azken saioan, lehiaketa berezia egingo da ikasi dituzten sukaldaritza teknikak erakusteko.

Tailerra arratsaldeko 18:00etatik 19:30era eskainiko da. Ikastaroa egingo den lekua zehazteke dago oraindik.

Bikoteka izena eman behar da. 2004 eta 2011 urte artean jaiotako haurrek parte hartuko dute honetan eta heldu batek lagunduta egingo dute tailerra. Aita-ama, aitona-amona, izeba-osaiba... izan daiteke. Gehienez, 10 bikotek parte hartu ahaliko dute ikastaroan.

Ikastaroko prezioari dagokionez, Ttakuneko bazkideek 33 euro ordainduko dituzte; bazkide ez direnek, berriz, 36 euro.



Dantza Topaketan estilo ezberdinak ikusi ahal izan ziren.



Dantzaren eguneko manifestua irakurri, soka-dantza egin eta dantzak guztiak berdin egiten dituela azpimarratu zuten.

Dantzari ohore eginez

Dantzaren Nazioarteko eguna ospatu zen ostiralean

Laugarren urtez, dantza protagonista izan zen Lasarte-Orian. Herriko eskola ezberdinek erakustaldi txikia eta estilo nahasketan oinarritutako jolasa eskaini zieten Okendo plazan bildu ziren herritarrei.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako dantza eskola ezberdinetako ikasleek haien trebetasuna erakutsi zuten Dantzaren Nazioarteko egunean burutu zen Dantza Topaketan.

Lehenik, agur berezia dantzatu zen, euskal dantza eta sevillanak uztartu baitzituzten.

Jarraian, eskola ezberdinen txanda izan zen. Erketz EDTk makil dantza eta azeri-dantza dantzatu zituen. Semblante Andaluz elkarteko Zambra dantza taldeko lagunek, berriz, sevillanak. Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideek dantza garaikideko erakustaldia egin zuten.

Bigarren zatian, dantza estiloen nahasketa egin zen.

Dantza kubatarak eta muxikoak, euskal fandangoa eta sevillanak eta banakakoa eta funkya alderatu zituzten herritarrek hauen artean egon daitezkeen berdintasunak ikusteko.

Azkenik, Lemi Ponifasio koreografo samoarrak idatzitako dantzaren eguneko manifestua irakurri bitartean, soka-dantza egin zuten eskola guztietako kideek.

Kukuka Antzerki eta dantza taldeak sustatutako ekintza laugarren urtez egin zen eta Udalaren laguntza izan du.



Joko moduan, estilo nahasketak egin ziren Topaketan. Hala nola, euskal dantza eta funkya batu zituzten gazteek.

Azkorteko erromeria, usadioa jarraituz

Bihar, maiatzaren 3a, Santa Krutz eguna dugu. Buruntza inguruko baserriarrek egun berezi hori ospatu ohi dute Azkorteko ermitara erromeria egin eta Gurutze Santuko Ama Birjina gurtuz. Usadioari jarraiki, Urnietako bizilagunak izango dira bihar egun seinalatua ospatzen; lasarteoriarren txanda, berriz, igandean maiatzaren 8an izango da.

Ttaku kultur elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren eta herriko hainbat talderen laguntzaz, erromeria goiza ederra antolatu du ermitaren inguruan.

Erromeria

Lehenik, 11:00ak aldera, Ama Birjinaren ohorezko meza izango da ermitan. Honetan Alboka Abesbatzako kideen kantuek gozatu ahalko da.

Amaitzean, Ttiriki Ttarraka eskolako lagunek haien doinuekin alaituko dute eguna.

Herri-kirolek ere izango dute bere tartea. Telleria anaiak harri-jasotzaile lanetan eta Mugertza anaiak aizkora lanetan izango dira.

Erakusketako lanez gain, erronka ere ikusi ahalko da. Bi bikote osatuko dira, Telleriar eta Mugertzatar bana

bikoteetan eta zehazteke dagoen lan bat egin beharko dute.

Amaitzeko dantza egiteko tartea izango da Ttiriki Ttarraka kideko lagunek.

Taberna

Honetaz gain, erromeriara hurbiltzen diren lagunek indarrak berreskuratzeko aukera izango dute ermita ondoan egongo den tabernan.

Odolkia, txorizoa, salda beroa eta edariak izango dira salgai.

Autobusez edo oinez

Antolatzaileek gogoratzen



Herri-kirolek ikusmira handia sortzen dute Azkorteko erromerian.

dute, egun horretan ermitara ezin dela kotxez igo.

Erromeriaz gozatu nahi duten herritarrek oinez edo autobusez egin dezakete Azkortera bidea.

Autobus zerbitzua goizeko

9:00etan hasiko da Biyak Bat erretiratuen egoitza aurreko geltokian.

Jaitsiera ere autobusez egin ahalko da. Zerbitzua erromeria amaitu artean egongo da martxan.

902 100 040
gipuzkoa.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa




ERRENTA2015

ZERTAN INBERTITZEN DU ALDUNDIAK ZURE DIRUA?

Ekonomiaz, garapenez, aberastasuna sortzeaz eta giza ongizateaz haratago, Gipuzkoa hazten jarraitzeko zergak biltzeaz haratago, orain, jartzen duzun euro bakoitza zugan inbertitzen dela ulertzeko momentua da. **Orain Gipuzkoa.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
URTEKO AURREKONTUA

812M€



ERRUGBIA.-

Behar baino lehenago esnatu dira ametsetik

UBU Aparejadores taldearen aurka galdu zuen Babyauto Zarautz taldeak etxean

Babyauto Zarautz taldeak ezin izan dio aurtengo sasoi ederrari amestutako amaiera eman. Ezin izan zuen UBU Aparejadores talde mendean hartu eta Ohorezko A mailara igotzeko final laurdenean kanporatua izan da. Gure Etxea Beltzak taldeek, berriz, ez zuten hutsik egin Durangoren aurka eta Lavie ZTR-Beltzak 14 urte azpiko taldea Gipuzkoako hirugarren izan da.

TXINTXARRI

Babyauto Zarautz taldeko jokalaria, prestatzaile eta zaleek espero eta nahi baino lehenago jo du iratzar-gailuak. Esnatu dira jada Ohorezko A mailara igotzeko ametsetik. Ander eta Xabier Rekondo anaia eta David Vega zelaian zirela, UBU Aparejadores taldearen kontra 21-30 galdu dute zarautz-talderrek, eta kanporatuta geratu dira, final laurdenean.

Hiru puntuko aldeari eman behar zion buelta etxeko taldeak. Burgosen 15-12 galdu zuten. Partiduek 40 minutu iraungo balute eta ez 80, sailkatuta legoke Babyauto Zarautz, 14-10 joan baitziren atsedendira. Tamalez, hori ez da horrela, eta UBU nagusi izan zen bigarren zatian, joko eraginkorra eta ederra erakutsiz. Fran Puertasen jokalariaik

dena eta gehiago eman zuten, azken izerdi tanta isuri arte borrokatu, baina ez zen nahikoa izan. Urtean zehar izandako lesio eta arazoek eragina izan zuten atzokoan.

Indarrak, eta, batez ere, animoa berreskuratzea dago orain jokalaria gorri-beltzei. Kategoriaz igoko ez badira ere, sasoi benetan txukuna osatu dute, liga erregularrean batez ere: 21 partidu irabazi dituzte eta bakarra galdu.

Gipuzkoako hirugarren

Errugbi arloan albiste guztiak ez dira izan txarrak, hala ere. 14 urtez azpiko Lavie ZTR-Beltzak taldeko gazte-txoekek sekulako denboraldia egin dute, Gipuzkoako txapelketan hirugarren geratuta. La Riojaren aurka lehiatu dira hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke kanporaketan.



Babyauto Zarautz taldeak ezin izan zuen UBU Aparejadores taldearekin. Irudian, Rekondo anaia.

A.MURIEL

Bien bitartean, talde horretako lau jokalaria Unai Pelaez, Gavi Gavilan, Mikel Ibisate eta Jokin Beloki Gipuzkoako selekzioarekin aritu dira asteburuan, Arcangesen (Frantzia), Cote Basque taldearen kontra.

Bestalde, 16 eta 18 urtez azpiko Gure Etxea Beltzak taldeek irabazi egin zituzten Durangoren kontra jokaturako neurketak, 28-34 eta 22-31, hurrenez hurren.

Seniorren Euskal Ligako taldeak atsedean hartu du jardunaldi honetan.



La Riojaren aurka jokaturako partidaren ederki jokatu zuten gazteek.

GAVI

IGERIKETA.-

Lehiaketara itzulera bikaina

Buruntzaldea IKTko igerilari lehiaketara itzulera nekez izan zitekeen hobe. 22 marka pertsonal eta hiru taldeko errekor berri zakuratu zituzten GIF 1 sarian eta Udaberriko ligako lehenengo jardunaldian.

“Udarako xedeei begira, pixkanaka, lanean jarraituko dugu, denboraldiaren amaierarako ahalik eta onena emateko”, nabarmen du Borja Apeztegia prestatzaileak.

Igo GIF saria Anoetan

Anoetako igerileku luzean aritu ziren bederatzi igerilariak –Mikel Esnal, Iñigo Ibarburu, Itsaso Tolosa, Nahia Jie Villamediana, Nora Irazusta, Leire Carcedo, Jon Ibargoien, Beñat Alkorta eta Irati Arzalluzek– hamabost marka pertsonal eta hiru taldeko errekor berri erdietsi zituzten. Absolutu mailako errekorra birrindu



Buruntzaldea IKTko kideak ederki aritu ziren Igo GIF sarian. BURUNTZALDEA IKT

egin zuen Ibarburuk, 1.500 libreen proban; 17:05:18ko denbora egin zuen.

Udaberriko ligaren hasiera

Bikain egin zuten igeri Hernaniko kiroldegian Udaberriko ligako aurreneko jardunaldian parte hartu zuten zazpi igerilariak –Unai Idigoras, Daniel

Herranz, Ane Otegi, Jon del Rio, Ibane Otaegi, Joel Lopez eta Maria Garasak– beste hainbeste marka pertsonal berri erdietsi zituzten.

Bestalde, aipatu behar da alebinak teknifikazio jardunaldia burutu zutela, Gipuzkoako Federazioak antolatuta, Bergarako kiroldegian.


PILOTA.-

Bergararen aurka ariko da Lasarte-Oria, herriarteko txapelketako final hamaseirenetan

Bergara izango da Lasarte-Oriaren aurkaria herriarteko txapelketako final hamaseirenetan. Joaneko partidua ostiral honetan jokatu dituzte, Michelingo pilotalekuan, 19:00etatik aurrera. Datorren asteburuan izango dira itzulikoak, Bergaran.

Kadete mailan Julen Urruzola eta Alex Etxeberria ariko dira; jubent mailan Jagoba Mendizabal eta Eneko Sarasola eta seniorretan Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola. Ordezkoen aulkian Aritz Solano egongo da. “Seniorretan haiek baino hobeak garela uste dut; kadete eta junior mailatan, ikusi beharko dugu”, adierazi du Intza KEko prestatzaile Jose Felix Solanok. Irabaziz gero, Azpeitiarekin –joan den urteko irabazlearekin– neurtuko lituzkete indarrak herriko pilotariak.

Pilotazaleek beste zita garrantzitsu bat edukiko dute larunbatean Michelinen. Arteaga II.ak Promozioeko eskuz banakako finalerdiak jokatu ditu Gorkaren aurka, 18:00etan.



Ostiral honetan ekingo dio Lasarte-Oriak herriarteko txapelketari.

Agenda

Ostirala 6, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Patriarkatua inposatuz

Ttanttaka taldeak 'El Florido Pensil - Neskak' antzezlan eskainiko du. Lanak gerraondoko Espainiako hezkuntza sistemaren krudeltasun absurdu eta zentzugabea jasaten duten bost neskatoren egunerokoa kontatzen du. Eskola gizar-tearen eta horren ideologia menderatzailearen isla zen. Ideologia horrek Erdi Aroko patriarkaturik sakonena berreskuratu eta azken ondorioetaraino ezartzea erabaki zuen. Sarrera, 12 euro. Interneten, 12 euro eta kudeaketa gastuak.

ederra egingo da Azkortekeko ermitan. Meza izango da eta herri-kiroletaz eta erromeriaz gozatzeko aukera izango dute hurbiltzen direnek. Autobus zerbitzua egongo da Biyak Bat egoitza aurreko geltokitik 9:00etatik hasita.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Maiatzean zehar

Estudio del Pintor akademiako ikasleek ikasturtean zehar egindako lanak aurkeztuko dituzte.

ANTONIO MERCERO GUNEA

Maiatzaren 9tik 14ra

Argia Astekaria eta Ttakun kultur elkarteak antolatuta, 'Trantsizioak' erakusketa izango da ikusgai. Argazkien bitartez, azken 40 urtetan izandako eraldaketa sozial eta politikoak islatzen da.

Lasarte-Oria

XI. Musika Topaketak

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 6, 19:30ean

XI. Musika Topaketan barruan, Carlos Rosat flauta jolea, Tomas Ruti fagot jolea eta Mario Telenti piano joleak musika eta poesia nahastuko duen emanaldia eskainiko dute. Danok Kide elkarteak antolatua.



del Destino -Libertad' liburua aurkeztuko da. Aurkezpenean saltzen diren liburuen ehuneko bat Medicos Mundi elkatearentzat izango da.

Proiektzio digitala

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 7, 20:00etan

New Yorkeko Avery Fisher Hallen egindako 'La Dolce Vita' kontzertuaren proiektzioa. New Yorkeko Orkestra Filarmonikoak zinema italiarraren doinu ezagunenak eskainiko ditu.

y la bestia' filma eskainiko dute. Sarrera, 3,80 euro.



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 8, 19:30ean

Helduen zinea atalean, 'Kiki, el amor se hace' filma eskainiko dute. Sarrera, 5,50 euro.

Liburu aurkezpena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 6, 19:30ean

Imanol Etxabe herritarraren 'La Mano

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 8, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'El niño

Azkortekeko Erromeria

AZKORTEKE ERMITA

Igandea 8, goiza

Santa Krutz eguna ospatzeko erromeri

Astelehena 9, 19:30ean

Sufrimendua ulertzeko gakoak eskainiko ditu.

Astearte 10, 19:30ean

Sufrimendua nola sortzen den azalduko du.

Asteazkena 11, 19:30ean

Sufrimenduan murgildu eta laguntzari buruz ere hitz egingo du.

Balioetan Hezi

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Danok Kide elkarteak antolatutako, Balioetan Hezi XIII. jardunaldietan Baketik elkarteko Iker Uson kideak 'Sufrimendua Ulertuz' hitzaldi sorta eskainiko du.

Herritarren txokoa

Udaberri festa marrazki erakusketa

Aterpea Merkatari elkarteak maiatzaren 13an Udaberri Festa antolatuko du. Hoenn barruan, bere dendetan hauren marrazki erakusketa egingo du maiatzaren 9tik 13ra.

Egun horietan, haurrek haien marrazkiak bilatu beharko dituzte Lasarte-Oriako dendetan. Aurkituz gero, oparitxoak jasoko dute.

Italiara bidai

Uda honetan Roma, Florentzia... aldeira modu independentean bidaiatzeko 40 eta 55 urte arteko pertsonak osatutako taldea sortu nahiko nuke. Anima zaituzte! Harremanetarako, 667 075 139, Asun. WhatsAppera ere erantzuten du.

Sarean

Euskalkiak lantzen

Euskalkitegia jokoak euskararen ahots eta kolore guztiak entzun eta ezagutzeko aukera ematen du.

Joko erraza da eta publiko zabalarentzat pentsatua dago. Euskaltzale, ikasle, irakasle, gazte eta nagusiek jokatu dezakete.

"Euskal Herriko Ahotsak" proiektuko bideoak ditu oinarri Euskalkitegia jokoak. Bideoetako lekukoak zein herritakoak diren asmatzea da gakoa. Jokalariak bideoari play eman, belarria findu eta hiztunak zein herritako euskara darabilen erantzun behar da.

Ahalik eta galderarik gehien asmatzea da erronka. Asmatu ahala, puntuak lortu eta maila igotzen da. Proba bakoitzak puntu-kopuru ezberdina du, eta zenbat eta zailagoa izan asmatzea, orduan eta puntu gehiago lortzen dira.

CodeSyntaxek garatutako joko hau Android plataformarako dago egina eta 4. bertsiotik aurrera erabili daiteke. Gutxienez 1GB RAM-eko memoria behar da.

Honetaz gain, egileen gomendioa da, WIFI bidez jokatzeko, bideoek kontsumo handia baitute.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintzarri@txintzarri.eus



Herrialde Katalanetako lagunek arratsaldean egindako desfilea Ball de diables taldearen su festarekin amaitu zen.

Anaitasuna nagusi

Herrialde Katalanetako kultura ezagutu ahal izan zen

Lasarte-Oria eta Torredembarroko herritarrek primeran gozatu dute asteburuan. 'Bi herri, sentimendu bakarra' senidetze kulturala burutu da eta Herrialde Katalanetako kultura ikusi eta ezagutu ahal izan dute lasarteoritarrek.

TXINTXARRI

Ikurrinak eta esteladaz betea egon da asteburu honetan Lasarte-Oriako erdialdea. Bi kuadrillen arteko harremana bi herri eta herrialdeen senidetze bihurtu da. Eta asteburu honetan, Tarragonako Torredembarra herriko 200 bat pertsona izan dira gure herrian. Hori dela eta, hainbat ekitaldi izan dira Okendo plaza eta herriko kaleetan.

Larunbata eguerdian, txistularien eta Oaintxe in deu! txarangaren doinuak motorrak martxan jarri zituzten. Txarangaren doinuak jarraituz, katalan, zein euskaldun kalejira txikia egin zuten erdialdean.

Okendo plazara bueltatzean topaketa kultural honen zergatia eta nondik azaldu eta ongi etorri ekitaldiari hasiera eman zitzaion. Agurra, soka-dantza, sorgin dantza eta kalejira eskaini zitzaizkien Herrialde Katalanetako lagu-

nei eta hauetako batzuk soka-dantzan eta kalejiraren parte izan ziren.

Txalagore taldearen notek bazkal ordura arteko tartearen girotu zuten.

Desfile ikusgarria

Babarrun jana ederra dastatu zuten Okendo plazan bildu ziren lagunek.

Bazkal ostean ere, txaranga kaleak alaitzen jarraitu zituen.

Kultura senidetzea izanik, Torredembarroko lagunek ere haien kultura erakutsi zuten Ball de diables, Ball de Serralonga, Ball de Bastons, Ball de Pastonets eta Colla castelleren nois de la torre taldeen eskutik.

Kalejira ikusgarria izan zen. Su ekitaldia, dantza tradizionalak eta castelles-ak nahastu zituzten. Okendo plazan eta Isla plazan erakustaldiak egin zituzten.

Aurretik, Lasarte-Oriako lagunek Topaketaren oroigarri

gisa txapelak banatu zizkieten talde guztiei, baita Pat Rice irlandarrari ere. Kultur talde katalanek ere haien oroigarriak eman zizkieten.

Erabakitze eskubidea

Aldarrikapenerako tarte ere izan zen arratsaldean.

Sare eta preso senideek maitzaren 29n preso esku-bideen alde Lasarte-Oriatik pasako den trenean parte hartzerantz deitu zuten.

Erabakitze eskubidea eta preso esku-bideak izan zituen hizpide Lluís Suñe Torredembarroko zinegotziak.

Ostean, herriko talde baten eskutik gorputza astindu ahal izan zen.

Gauean, Gure Esku Dago lagunen eta herritarren eskutik, erabakitzearen esku-bidearen aldeko kriseiluz bete zen Lasarte-Oriako zerua.

Dastaketa

Igandean berriz, dultzaineroen dianak esnatu zuen herria.

Eguerdian, Herrialde Katalanetako produktuak dastatzeko aukera izan zen bermutarekin batera, hala nola, pan amb tumaca edo butifarra.



Ongi etorri beroa egin zitzaion Torredembarroko lagunei.



Dantza, castellers-ak eta sua izan ziren arratsadeko kalejira eta erakustaldietan.



Gure Esku Dago ekimeneko kriseiluz gaua argitu zuten.

I. ZABALA



Atzo goizean, Reuseko bermuta edan eta Herrialde Katalanetako produktuak dastatzeko aukera izan zen Okendo plazan.

